

FAMILIKO EKINTZA ETA EKINTZA PUBLIKOA: BI KONTZEPTU ANTAGONIKO?

la mundu guztiak noizbait eginga duen galdera eta krisi garaietan sarriagotan agian, da, edozein eratako eragozpenak dituzten pertsonentzat, Administrazio Publikotik finantzatutako laguntza formal baten sistemaren antolamenduak, ez al gaituen eramaten pertsonak berez inguruarekiko duen zaletasuna galeraztera, laguntza ez-formalen edo espontaneo bidez arazoak argitzeari kalte eginez.

Gerdt Sundstrom suediar soziologoa ahalegindu da galdera horri erantzuna ematen, Caring for the Aged in VVelfare Society (1) izeneko liburu interesgarrian, interes nabaria duten datu enpirikoaren analisiaren bidez.

Alde horretatik, Suedian arazo sozialen laguntza sistema formalaren eta ez-formalaren arteko "nor gehiagoka" dei genezakeen auzi horren eboluzioa ezagutzea baliagarria da guretzat, Herri horrek bait dauka Instituzio publikoetatik bultzatutako laguntza formalaren eredurik garatuena.

Garapen garai horrek, eraman al ditu, zaharren kasu konkretuan, beren bakardadea handiagotzera, beren familietatik apartatzera, sustairikgabe uztera, eta zaha-

rren egoitzak sarriagotan erabili behar izatera? la ziur, orokorki, hori gertatzen dela pentsatzen da, hots, atentzio formal eta ez-formal antagonikoak direla, eta bigarren forma hori, familiaren ekintzatik, bakoitzak bere gogoz egitetik datorren hori dela nahi den laguntza, beraz, hori ona dena, eta ongitasun maila handiagoa eman dezakeena. Pentsatzen da baita ere, gizarte batek garapen maila handiagoa lortzen duen eran, tradiziozko erantzunkizunak uztera eta ekintza ez-formal instituzio publikoak antolatutako ekintzetatik ordezkatzeko ahaleginak egitera eramaten gaituela.

Pentsatzen dut baita ere nahikoa sustraitua dagoela honoko ideia hau, hots, instituzio ekintza bidez gauzak zenbat eta errazago egin, orduan eta joera handiagoa dagoela betekizun moral bezala hartzen dugun guraso zaharrei kasu egin beharra alde batera uzteko.

Eztabaidatzeko asko legoke iritzi mota horietaz, eta konkretuki erantzuten dieten iritzi ideologikoei buruz. Urrutirago joan gabe, gurasoei kasu egiteko egin behar moralari buruz hitz egiten denean, ahaztu egiten da edo ahaztu egin nahi da, bene-

tan egin behar hori bere gain hartzen dutenak, 45 urtetik 59 urtera bitarteko emakumeak direla. Beraz, gizon emakumeak orokorrean, tradiziozko eta ordezkatu ezina den familikoei kasu egiteari buruz hitz egitean, arazo horretan pertsona talde oso konkretua sartzen ari gara.

Interesgarria izango litzateke ere eztabaidatzea, laguntza behar duten pertsonen eskubideak betetzea, zaharren beharrak kasu konkretu horretan, zer puntutara ino lotua egon behar duen beste pertsonen bere gain moral tipoko egin beharra hartzeko edo uzteko daukaten zoriarekin.

Bestalde, ez litzateke gaizki egongo kritikoki analizatzea, ikuspegi kualitatibotik, familiako inguruneakaseguraturiko atentzio ez formalari ematen zaion balizko nagusitasuna. Izan ere, ia beti formula hori idealizatzen joaten dugu eta ahaztera, kasu askotan, atentzio emaile eta hartzailearen arteko elkartruke batean oinarritzen dela, besterik gabe, lekuz kanpo egonik bestearekiko edozein on egite edo lagunkidetasun printzipio. Halere egoera askotan, itxuraz belaunaldien arteko lagunkidetasun printzipioak funtzionatzen dutenetan, ez litzateke

zaila izango ikustea errentari, etxebizitza izateko aukerari eta materialak diren beste askori lotutako faktoreek elkarrekiko duten eraginak baldintzatzen duela (edo, hobeto esanez, erabakitzen duela) familiaren barruan arazoa norbaitek bere gain hartzea, eta guztiorrek zaharrendaren nahitaez zalantza gogorrek sortzen dituela seme-alabengana jozteko dituen eskubideak aztertze orduan.

Atentzio ez formala atentzio formalagatik aldatzeko prozesua, izan daiteke, beti ez bada, behintzat bai kasu askotan, eboluzio positibo bat, erabateko materialtasunetik kanpo, onuraduna egoera larri batetik, nolabait esateko, laguntza hartzeko eskubide osoa izango lukeen beste egoera batera aldatuz doan eran.

Argi dago, halere, ez dela ahaztu behar, oraingoz behintzat, nola gure inguruan, ia beti, irtenbideak familiatik kanpobilatzen behar izatea bizitzan porrot egitearen bururapen bezala bizi izaten den, horrek berekin dakarrelarik, materialtasunetik kanpo, irtenbide ez-formalak nahiago izatea instituzio publikoetatik bultzatzen direnak baino.

Nahiz eta behin baino gehiagotan arazo horiek astiroago analizatzen joango garen, komeni zaigu buru belarri sartzea hasieran aipatu dugun gaian: egia al da atentzio formalak, bere garapenak, oraindik gure artean zaharren problemek erantzuteko arrazoi nagusi diren ekintza espontaneoa,

famili ekintza eta tradiziozko ekintza hoztu egin dituela?

Gerdt Sundstrom-ek ezet dio. Berak sei lan hipotesi planteatzen ditu, esan den bezala datu objektiboekin baieztatu nahi dituenak.

—Atentzio formalaren hazkundeak igo egin du jendearen askatasuna laguntza ez formalarekiko; igo egin da bizitza libre egin eta beren familiekin berdintasunezko erlazioak gordetzen dituzten pertsonen kopurua.

—Atentzio ez-formalaren zenbait formula gutxiago erabiltzea hautakizun formalarekin konparatuz gero, bizitza libre bat aurrera eramateko aukeren gorakadaren ondorioa da, bizitza hori bait da zahar gehienek gogokoen dutena.

—Atentzioa eskaintzen dutenen ikuspuntutik, atentzio ez-formalaren beherakada, atentzio hori eskaintzeko aukerak jaisteari gehiago zor zaio preferentzi aldatze bati baino.

—Atentzio-formalaren zabalitze bat ematen denean espero daiteke atentzio ez-formalaren edukina arazo praktikoei erantzutetik (elikadura, dirua, garbitasuna etab.) behar indibidualagoak kontuan hartzea igarotzea. Horrek ez du esan nahi derrigorrez, familiak eginkizun asko aldamenera utzi behar dituenik edo bigarren planu batera pasa behar duenik atentzio formalak parte hartzen duenean, ezta zaharrekiko atentzio oroko-

rra baxuagoa denik kalitatez eta kantitatez ere.

—Suposatzen da atentzio ez-formala, zaharrak beste aukerarikezuenean ematen dena, azkarrago jaitziko dela beste motiboetan oinarritzen dena baino, atentzioaren prestatzaile potentzialak beste hautakizunak dituztenean.

—Atentzioaren hartzaile potentzialentzat, pentsatzen dugu laguntza altruista —inplikatzeko duen estatus galera dela-eta, hain onartua ez dena— ez dela elkarrekiko laguntza eta emailtzetan oinarritutakoa bezain finkoa.

Ingurune txarra, bakarrik egotea baino kaltegarriagoa

Zalantzan jartzerik ez dagoen gai bat azpimarratzen hasi beharra daukagu: Aseguru Sozialekogastuak handiak diren herrietan, etxebizitza berean belaunaldi desberdinak elkarrekin bizitzeko joera txikiagoa da. Baina hortik ez dago besterik gabe erabakitzerik belau-naldien arteko harremanak okerragoak direnik eta are gutxiago zaharren bizimodu maila baxuagokoa denik, balizko lagunkidetasunezko sistema ez formaletan oinarritzen den atentzioa eskaintzen den herrietan baino. Gerta liteke, besterik gabe, herri horietan, Aseguru Sozialak finantziatutako atentzio formalak garapen maila garaia dutenetan, adineko pertsonak bere etxebizitza izateko eta semeengandik libre bizitzeko aukeraz baliatzea.

Suedian, esaten digu Sundstrom-ek, daitekeena da zaharrek bakarrik bizitzeko duten joera, bere osasun egoeran dituen hobekuntza orokorre, pentsioen maila garaia izateari eta azkenik etxebizitza onak eta ondo egoituak izateari zor izatea.

Orain dela 30 urte, 1954 an, parejarik ez zuten adineko pertsona gutxiartuen % 43a, seme edo alabaren batekin bizi zen, % 15a bakarrik bizi zen eta % 42a egoitzen batetan. 1975 ean ordea, % 55a bakarrik bizi zen eta % 8a bakarrik beren seme-alabekin. Baina azpimarratu behar dena da "bakardade" hori eta baztertua egoitearen bakardadea ez direla batu behar, zergatik instituzioetan dauden zaharren kopurua, goraka joan ordez, % 37a izatera pasa bait da. Esan daiteke bada autonomi arazoak dituen zaharren gehiengoak, 1975 ean beren seme-alabengandiketa instituzioetatik libre bizitzea lortzen duela.

Suedian, belaunaldien arteko erlazioen eboluzioak badirudi arrazoi ematen diola Sundstrom-ek planteatutako laugarren hipotesiari. Atentzio formalak, pentsio sistemaren garapenak, etxebizitzarako erraztasunak, etxerako atentzioak etab. bideratzen dute zahararren ingurukoak oinarritzko arazoez arduratzetik Administrazioak arduratzetik ez daukan beste tipo bateko arazoez arduratzera pasa ahal izatea.

Beste atal batean esan dugu (2) Etxerako Asistentziak konkretuki, ez lukeela balio izan behar seme-alabek beren gurasoenganako

ERRESERBA ASISTENTZIALA

Zaharren erreserba asistentziala 45-59 urte inguruko emakumezkoak osatzen du nolabait, populazioaren sail honek horren ardura hartzen du orokorrean, atentzio sistema formaletara joezina gertatzen denean edo erabili nahi ez bada.

Hala ere —Suedian egindako inkesta batetan agerienez—emakumezkoak dira hain zuzen ere, gizon-emakume zaharrak gizarteak zaindu behar dituela pentsatzen dutenak.

Noren eskutan utziko zenituzke zure gurasoak bere gain har ditzan. Suedia 1981.

(45-59 urteko gizon-emakumeak gurasoak bizirik dituztenak)

Portzentaia	Nahiago nuke neuk zaintzea (a)	Nahiago nuke gizarteak bere ardurapean hartzea	Nahiago nuke zainketa gizarte-arekin banatzea	Seguneta erantzun gabe	Orotara
Gizonezkoak	53	10	23	14	100
Emakumezkoak	38	24	32	6	100
OROTARA	46	16	27	11	100

Izan ere, guraso zaharrak bizirik dituzten gizonen erdia baino gehiagori gustatuko litzaioke gurasoak zuzenean zaintzea, hala nahikoa boluntarismo agertzen bide dutelarik, zeren eta emakumezkoak, tradizioz arduratu behar ohi dutenak, ez du ematen hori egiteko oso gertu daudenik. Are gehiago, 45 eta 59 urte bitarteko lau emakumetatik batek, gurasoak bizirik dituztenetakoak, nahi izango luke gizartea izan dadila hauen ardura bere gain hartukolukeena. Gizonetako % 10ek bakarrik azaltzen du gauza bera.

ardura baztertzeko, baizik eta zaintze "hobea" eta erlazio handiagoa erraztuko duen elementu izan behar lukeela.

Errealitatean, datuek erakusten dute Suedian egoitzetan bizi diren zaharren portzentaia, denborarekin ez doala aurrera, eta mende-baldeko beste herrietakoa baino handiagoa ez dela (3).

Erakusten al dute datu hauek famili inguruak eta konketuago 45 eta 59 urte bitarteko alabak eskaintzen duen atentzio informala "morelezko eginbehar" batetik datorrela eta makina bat kasutan eskaintzen duenaren borondatearen aurka eta agian baita jasotzen duenaren aurka ere ematen dela?

Ba liteke. Edozein kasutan emakumezkoek eratzten duten erreserba asistentziala agortzeko bidean dago. Emakumea lan munduan sartzeak bistan da zaildu egiten dituela historikoki hark beretzat hartu dituen beste egiteko batzu, eta konkretuki senide zaharrak edo gaisoak zaintzea, baina hori alde batera utzita ere, errealitate bat da denboran zehar 45 eta 59 urte bitarteko emakumezkoen proportzioa gutxituzdoala gero eta gehiago, 65 urte gainditu dituztenen proportzioarekin konparatuta.

Gaur egun, Euskal Herriko Komunitate Autonomoan 45 eta 59 urte bitarteko emakumezkoen multzoa txikixegoa da 65 urteko gizon-emakumeena baino. Lehendabiziko kasuan 190.000dira eta 195.000 bigarreanean. Zenbaki hauek ondoko ratioari dagozkio: 1.000 zaharretatik 974 emakume 45-59 urte bitartekoak (1980. urtean). Proportzio hau altua da Europako beste zenbait herriekin konparatzen badugu: Suedia 590, Britaina Haundia 643, Dinamarka 650, Finlandia 829, Noruega 644... (1974ko datuak)... baina 20 urte lehenagoko proportzioa 1.000 zaharretatik 1.136 emakumezkoena zela kontutan hartzen badugu, edozein ideologi motaz aparte, onartu behar dugu gizarteari zaila gertatuko zaiola emakumezkoak erreserba asistentzialaren eta atentzio informalaren papera bereganatzen jarraitzea, gizon-emakumeek, eta dirudienez gizonok batez ere, hainbestearaino idealizatzen dugun gauza.

Badirudi baieztatzen dela baita ere zaharren libre izate prozesuak ez duela erakarri seme-alaben inolako atentzio faltarik. Errealitatean, belaunaldien arteko harremana goraka joan dela dirudi Suedian azken gizaldi laurden honetan eta gaur egun zaharren % 65a beren seme-alabekin egoten da astean behin gutxienik.

Bestalde, eta datu horrek esanahi handia du, badirudi bakardadea aitortzeko orduan, proportzio berdinean egiten dutela, hala seme-alabekin bizi direnek nola bakarrik bizi direnek.

Etixerako Asistentzia askatasunaren oinarri

Suedian zaharren askatasuna posible egiten duten funtsezko elementuetako bat, pentsioen maila alde batera utziz, Etixerako Asistentzia zerbitzua lortzeko aukera izatea da. Hain zuzen ere, datu bitxi batek, jende artean zerbitzu horrek duen eraginari buruzkoak, erakusten digu baita ere atentzio sistema formalaren eta ez formalaren artean dagoen osagarritasunezko erlazioa.

Gertatzen da bakarrik bizi direnek, etxerako asistentzia gehiagotan hartzen dutela bikotea denean baino, arrazoizko gauza izanik, kanpoko laguntzaren menpekotasuna igo egiten bait da bakardadearekin, baina hemen aipagarria da, hala kasu batean nola bestean, etxerako edozein tipotako laguntza edukitzeko joera igo egiten dela zaharrak, lagunarekin edo bakarrik bizi denak, seme-alabak dituenetan eta gehiago igotzen da oraindik seme-alaba horiek bere etxebizitzatik gertu bizi direnean hain zuzen ere.

Etixerako Asistentzia hartzen duten zaharren proportzioa

Bakarrik bizi da	Bikotea bizi da
Seme-alabarik gabe: 20	Seme-alabarik gabe: 7
Seme-alabekin	Seme-alabekin
gertu ez: 24	gertu ez: 7
gertu: 30	gertu: 19

Horrek garbi erakusten du laguntza ez-formala eduki-tzeko —seme-alabena— teo-rikoki aukera gehien dute-nak direla, hain zuzen ere, atentzio formalera gehien jotzen dutenak eta suposa-tzekoa da beren seme-ala-ben bidez egiten dutela, haiek guraso zaharren bizi-baldintzez kezkatutik. Non-bait seme-alabak ardurat-zen dira laguntza bide-ratzen, eginbehar guztiak egiten, hitz batean, gura-soak zerbitzurantz biderat-zen, seme-alabarik ez dute-nek, berriz, murriztuak iku-sirik, baldintza berdinetan, sartzeko aukerak.

Datu horietatik jaso behar al da seme-alabek baztertu egiten dutela gurasoakzain-tzeko duten ohizko eginbe-harra edo, bai erosotasunez bai berekoikeriaz, guraso zaharren ardura zapuzten duten seme-alabak ordezk-a-tzeko bakarrik balio duela Etxerako Asistentziak?

Ezetz uste dugu. Kontuan edukirik Etxerako Asistentzia astean ordu batzutura mu-gatzen dela, egiten duena hau da, kalitate maila han-diagoaz bete maila sozial pribilegiatuetan etxeko zer-bitzuak egiten zuen lana (gaur egun Suedian ia existi-tzen ez dena), eta langile mailan emakume ezkong-a-beak batipat betetzen zuena, zailtasun handiz betiere, lan merkatura inkorporaturik bait zegoen. Azken finean, atentzio ez formalaren sis-temei ematen zaien lagunt-za osagarri bat da, zaha-rraren askatasuna eta seme alabekiko erlazio libreagoak permititzen dituen, zaha-rrak zama astun bezala hartuak izatera

eramaten duen hainbeste muga hertsitatik aparte.

Zaharrei maila desberdi-netan ematen zaien lagun-tza formalaren aurreratze handiarekin, suediarrek hau-takizun berri eta gogozkoa lortu dutela dirudi, egoitze-tako ohizko irtenbideen eta gurasoen presentzia eginbe-har moral gisara inposatzen zaien seme-alabekin bizitze-aren artean. 65 urte baino gehiago dituzten suediar gehienek hirugarren bide bat aukeratzen dute, askatasun bizitza, dirudienez, erlazio hobe batera eta, orokorrean, zaharrentzako atentzio ez-formalen sistemen aprobe-txamendu hobe batetara zu-zentzen duena.

Saizarbitoria

- (1) Stockholm Studies in Social Work. School of Social Work, University of Stockholm 1983.
- (2) S.I.I.S. "Etxerako Asistentzia". Gasteiz, Eusko Jaur-laritz-a, 1 984, 154 orrialde.
- (3) Bai, Euskal Komunitate Auto-nomoan baino handiagoa da. Sundstrom-ek dioenez, 1974an suediar zaharretariko % 6,1a instituzioetan bizi zen. Britania Handian % 5a, Dinamarkan % 6,5a, Finlandian % 9a, Norue-gan % 6,6a eta Japonen % 1,3a. Estatu mailan oheari dagokien indizea 100 zaharrentzako 2 ohe-koa da eta Komunitate Autono-moan 3,6 ohekoa. (Eusko Jaur-laritz-a, Zaharrentzako Zerbitzu Sozialak, 1983) horregatik ezi-nezkoa da egoitzetako bezeroek indize horiek gainditzea. Kontu-tan eduki behar da noski zer puntutaraino, gure kontextuan, egoitzetan bizi diren zaharren proportzio baxua toki gutxi iza-teagatik den ala txandakako ir-tenbideetara jotzeko aukeragatik.